

2022ko URTARRILAREN 27an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA **1 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2022ko urtarrilaren 27an, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Zinegotziak	Miren Letamendia Belloso and. (telematikoki) Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozueta Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. (telematikoki) Leire Arana Olabarrieta and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. (telematikoki) Iker Basurko De Miguel jn. (telematikoki) Irene Urbieto Alberdi and. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Mikel Goenaga Gubia jn. (telematikoki) Ainara Landa Argote and. Begoña Olaizola Elordi and. Xabier Etxaburu Elu jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. (telematikoki) Eider Illarramendi Azkue and. (telematikoki) Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. (telematikoki) Oihane Delgado Pita and. (telematikoki)
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
Kontu-hartzailea	Karmele Lizaso Ubera and. (telematikoki)

Covid-19ak eragindako alarma egoera dela-eta, aipatutako zinegotziek bideokonferentzia bidez hartu dute parte.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2021eko ABENDUAREN 30eko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220127&punto=1>

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2021eko abenduaren 27tik 2022ko urtarrilaren 21era.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220127&punto=2>

Segidan, Alkatezak 2021eko abenduaren 27tik 2022ko urtarrilaren 21era erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2021eko abenduaren 27tik 2022ko urtarrilaren 17ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220127&punto=3>

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko abenduaren 27tik 2022ko urtarrilaren 17ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- INFORMAZIOA: FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZ:

– 2021eko 4. hiruhilekoa.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220127&punto=4>

Udalbatzak jakin berri du 2021eko laugarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

5.- INFORMAZIOA: ORDAINKETAKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZ:

– **2021eko 4. hiruhilekoa.**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220127&punto=5>

Halaber, Udalbatzari jakitera eman zaio 2021eko laugarren hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

6.- ERROTABERRI. ERABILERA-ERREGIMENARI BURUZKO ORDENANTZEN ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Espedientea: 2020H7000011

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220127&punto=6>

Akordio-zirriborroa irakurri eta gero, proposamena eztabaidatu da.

Proposamena bozkatu dute, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak:	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	9	8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak
Abstentzioak:	-	

Ondorioz, adierazitako botoekin proposamena onartu da.

Zarauzko Udalak Errotaberri industria-sektoreko plan partzialaren C.3.1 ordenantza –erabilera-baldintzak– aldatzeko espedientea sustatu zuen. Hauek dira aldaketaren helburuak:

Zarautzen 1.000 m²-tik gorako txikizkako merkataritza-establezimenduen eskaintza handitzea eta lehia sustatzea, herritarren onerako. Aukera hori bi partzeletan bakarrik onartuko da; horien azalera eraiki osoa ez da iristen Errotaberri sektorearen % 14ra.

Gainerako partzeletan, erabilera bateragarri eta onargarri gisa sartzea egun debekatuta dauden zenbait erabilera (kirol- eta erlijio-ekipamenduko erabilerak, hileta-zerbitzuak...).

2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onespena eman zion ordenantza aldatzeko proposamenari.

Espedientearen jendaurreko erakustaldian, guztira 3 alegazio-idazki aurkeztu ziren, eta Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak horiei buruzko txostena egin zuen.

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Aurkeztutako alegazioei erantzutea, Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak egindako txostenaren arabera (urtarrilaren 5eko 004/2022 txostena). Horren ondorioz:

1.- Abendañon ere Errotaberrirako proposatutako erabilera-araubide bera aplikatzea (bi alegazio). Alegazioak onartzea. Hala ere, kontuan hartuta Errotaberriko erabilera-ordenantza aldatzeko espedientea zein egoeratan dagoen, hobe da bakoitza bere aldetik izapidetzea. Lehenik eta behin, Errotaberrirako hasitako espedientea amaituko da, eta, ondoren, beste espediente bat hasiko da Abendañoako plan partzialeko erabilera-erregimena aldatzeko.

2.- Saltokien konkurrentzia bultzatzea prezioak merkatzeko (alegazio bat). Berariaz adierazten da Udalak izapidetutako proposamenaren helburu nagusia, hain zuzen ere, Zarautzen 1.000 m²-tik gorako establezimenduen eskaintza handitzea dela eta, bide batez, kompetentzia sustatzea, herritarren onerako.

Bigarrena.- Behin betiko onespena ematea Errotaberri industria-sektoreko plan partzialeko C.3.1 ordenantzaren aldaketari (partzela industrialen eremuko erabilera-baldintzak).

Behin betiko onespeneko dokumentuaren edukia eta hasieran onartutakoa berdin-berdinak dira (2021eko ekaineko dokumentua, Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak idatzitakoa).

Hirugarrena.- Onartutako dokumentua Foru Aldundiaren hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.

Horren ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira behin betiko akordioaren testu osoa eta hirigintzako ordenantzak. Halaber, behin betiko onespenearen akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.

7.- 2022-KALD-000001-00 ZK. DUEN KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA (KREDITU TRANSFERENTZIA MODALITATEAN) 2022. EKITALDIRAKO AURREKONTUAN.

Espedientea: 2022D20200001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220127&punto=7>

Akordio-proposamena irakurri eta gero, udal taldeek beren iritzia emateari ekin diote. Eta eztabaida amaituta, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

Aldeko botoak:	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	8	8 EH Bildu
Abstentzioak:	1	1 Podemos-Equo Berdeak

Horrenbestez, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

2022-KALD-000001-00 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea tramitatu du Udalak, 2022ko ekitaldirako aurrekontuari dagokio, eta kreditu transferentzia bidez gauzatu da.

Ikusita kontu-hartzaileak espedientearen alde egin duen txostena, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak gehiengoz

ERABAKI DU

2022-KALD-000001-00 zenbakia duen kreditu aldaketarako espedientea onartzea, laburpen honen arabera:

Kapitulua	Izena	Aldaketa
VI	Inbertsio errealak	-417.000,00
VI	Inbertsio errealak	+417.000,00

8.- ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUA ADJUDIKATZEA

2021IK200004 espedientea

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220127&punto=8>

Segidan, aztergai honi dagokion akordio-zirriborroa irakurri du idazkari andreak. Amaieran, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak:	13	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak
Kontrako botoak:	-	
Abstentzioak:	8	8 EH Bildu

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau erabaki du:

2021eko irailaren 30ean Udalbatzarrak egindako bilkuran, ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO

ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUAren kontratua adjudikatzeko administrazio-klausulen eta baldintza teknikoen agiriak onartzea eta deialdia egitea erabaki zuen Udalbatzarrak.

Lizitazioaren iragarkia 2021eko urriaren 1ean bidali zen Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera, eta Zarauzko Udaleko kontratatzailearen profilean argitaratu zen. Eskaintzak aurkezteko epea 2021eko urriaren 28an amaitu zen, eta epe horretan hurrengo enpresek aurkeztu zituzten bereak:

ISS FACILITY SERVICES SA
GIZATZEN SA

2021eko azaroaren 30ean egindako ezohiko bileran, B eta C kartazalen emaitzak eta Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuaren arduradunak egindako txostena ikusi ondoren, Kontratazio Mahai Iraunkorrek hurrengo proposamena egin zuen:

	B ARTXIBOA	C ARTXIBOA	GUZTIRA
ISS FACILITY SERVICES SA	29,70 puntu	45 puntu	74,70 puntu
GIZATZEN SA	33 puntu	54,89 puntu	87,89 puntu

Kontratua GIZATZEN SA enpresari adjudikatzea, egindako txosten teknikoan eta aurkeztutako eskaintza ekonomikoan oinarrituta, orokorrean eskaintzarik onena aurkeztu duelako. Enpresak epe barruan aurkeztu ditu kontratua adjudikatu aurreko frogagiriak.

Ikusita Lurralde arloko informazio-batzordeak emandako irizpena, Udalbatzarrak, gehiengoz

ERABAKI DU

Lehena.- GIZATZEN SA enpresari adjudikatzea ZARAUZKO UDALAREN JABETZAKO LOKALAK, ERAIKINAK ETA BIDE PUBLIKOKO ELEMENTUAK GARBITZEKO ZERBITZUAren kontratua. Kontratuaren baldintzak, gauzatze-epeak eta ordaintzeko modua lizitazioaren oinarri izan diren administrazio-klausulen agirian eta baldintza teknikoen agirian adierazitakoak izango dira, eta enpresa adjudikaziodunak egindako eskaintzarekin bat etorriko da, pleguen eta honako baldintza berezi hauen aurka ez doan guztian:

Kontratuaren prezioak:

Prezioak orduko:

P1: 36,97 euro, BEZ barne (30,55 euro + 6,42 euro BEZ)

P2: 37,87 euro, BEZ barne (31,30 euro + 6,57 euro BEZ)

Eskaintzako orduko prezioaren barruan sartuta egongo dira zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoa den guztia: aparteko ordainsarien parte proportzionala, plusak, lan-absentismoa, langileen ordezkapena, bitarteko laguntzaileak, zergak, materialak...

Urteko kostua 2.030.183,25 euro, BEZ barne (1.677.837,40 euro + 352.345,85 euro BEZ); hemen sartuta egongo dira zerbitzutik sortutako gastu guztiak.

Honen barruan, gehienezko ordu-poltsa bat edukiko da ondorengo eraikinetan garbiketa-lan orokorrak egiteko: Orokieta, Orokieta berria, Haurreskola, Haurreskola berria, Udal Musika Eskola, EPA eta Euskaltegia; guztira, urteko 1.972,00 ordukoa izango da, eta Baldintza teknikoen agiriko II. eranskinean adierazitakoaren arabera banatuko dira. Garbiketa-lan orokorretako orduak – ordu-poltsa guztia erabiltzea ez da derrigorrezkoa – ezingo dira inolaz ere egin zerbitzu horiek eskatu dituen zentroko arduradunaren eta udal teknikarien baimenik gabe. Eta, gainera, egindakoak justifikatu beharko dira, enpresa adjudikaziodunak horri buruz egindako txostenaren bidez. Adjudikaziodunak ohiko ordutegirako eskaintako zerbitzu-orduaren prezioa aplikatuko zaio ordu-poltsa horri (P1).

Prezio berean ordainduko dira udal eraikin guztietan egingo diren lanorduak, alde batera utzita lan-kategoria desberdinetako pertsonak egindakoak diren, aparteko orduak diren, etab. Lanordu horiek osatuko dute ohiko ordutegia, eta ordutegi normalean hauxe izango da: P1=36,97 euro, BEZ barne (30,55 euro + 6,42 euro BEZ). Era berean, prezio horretan ordainduko dira bai garbiketa orokorren eta aparteko zerbitzuen lanorduak, bai kontratuaren indarraldian egiten diren eraikin berrien eta/edo handitzeen garbiketa-orduak.

Aldiz, jaiegunetako gaueko ordutegian (22:00-6:00) edo igande edo jaiegunetako gaueko ordutegian egindako lanorduak prezio berean ordainduko dira, alde batera utzita lan-kategoria desberdinetako pertsonak egindakoak diren, aparteko orduak diren, etab. Jaiegunetako eta/edo gaueko ordutegiaren prezioa (P2), orduko, 37,87 euroko izango da BEZ barne (31,30 euro + 6,57 euro BEZ).

Kontratuaren indarraldian zehar eskatzen diren beste garbiketa-lan batzuei ere orduko prezio horiek aplikatuko zaizkie. Garbiketa-lan berriak bi arrazoi hauengatik sor daitezke: eraikin edo lokal berriak martxan jarri direlako, edo kontratuan sartuta dauden eraikinen zerbitzu-orduak areagotu egin direlako.

Baldin eta udal zerbitzu teknikoek, ofizialki, egokitzapenak egiteko eskatzen badute (beherantz edo gorantz) emandako zerbitzuetako ordutegietan, jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasi eta 5 egun naturaleko epean jarri beharko dira martxan egokitzapen horiek.

Kontratuaren iraupena eta gauzatze-epea:

-Kontratuaren iraupena, gehienez ere, lau urtekoa izango da, luzapenak barne.

-Kontratua gauzatzeko epea bi urtekoa izango da formalizatzen denetik aurrera, eta luzatu ahal izango da, baina iraupen osoa, luzapenak barne, ezin izango da lau urtetik gorakoa izan.

Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du eta enpresariarentzat derrigorrezkoa izango da, betiere kontratuaren iraupen-epea amaitu baino bi hilabete lehenago gutxienez bidali bazaio aurreabisua.

Indarraldia eta, hala badagokio, luzapenak igaro ondoren, kontratua automatikoki amaituko da, eta enpresa adjudikaziodunak zerbitzua emateari utziko dio. Hala ere, nahitaez jarraitu beharko du, baldin eta adjudikaziodunaren xede den zerbitzu berria lizitatzeko espediente hasi bada eta enpresa adjudikaziodun berriak bere gain hartu arte. Aldi horretan, kontratuan aurreikusitako prestazioak jasoko ditu.

Kontratua sinatu aurretik, adjudikaziodunak langileen buru gisa egongo den enkargatua izendatu beharko du, eta hark administrazio-klausuletan eta baldintza teknikoen agirietan lanposturako eskatutako baldintza guztiak bete beharko ditu.

Bigarrena.- Kontratua administrazio-agiri bidez formalizatuko da.

Arratsaldeko zortziak eta hogeian, **Alkate** jaunak bilkura eten egin du, Covidaren inguruko segurtasun neurriak direla eta, aretoa aireztatzeko. Handik hamar minutura, zortziak eta hogeita hamarrean, berriro ekin diote bilkurari.

9.- ESKARI-GALDERAK

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20220127&punto=9>

Itziar Murua EH-Bildu udal taldeko bozeramaileak hitza hartu, eta, bere taldearen eta Podemos-Equo Berdeak taldearen izenean, Udal Merkatuan laster egingo diren obrei buruz galdetu du, eta, postuak betetzen ari direnekin hitz egin ondoren, ea aukerarik dagoen lanak faseka egiteko.

Leire Arana Merkatuko zinegotzi arduradunak horri erantzun dio, eta gainera adierazi du datorren asteazkenean bilera bat egingo dutela postuetako titularrekin, eta bertan argituko dituztela azaltzen diren zalantzak eta galderak.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zortziak eta berrogeian; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.